

BIDEGOIAN / Liburutegi berriarekin, zerbitzu berria martxan da

Herritarrek ikusi zuten honen beharra eta horri erantzunez, balioanitzeko zentroko goiko solairuan egin dute.

NEREA URBIZU

Atzo arratsaldean Bidegoiango liburutegia inauguratu zuten. Zerbitzu berria izango da, duela 17 urte izan ez duena. Balioanitzeko zentroko bigarren solairuan dago, eta 80 bat metro karratu inguruko espaziokoa da. Bertan, bakarrik liburuak daude oraingoz, baina zabaltzen joango dira, ikus-entzunezkoak ere gehituz.

Wi-fi sistema ere badago, beraz, ordenagailu eramangarria eramanez gero, bertan Interneterako konexioa izango da.

Txoko edo atal ezberdinak daude: mahai handi bat 12 bat lagunentzako, txiki-txoko bat (6-7 urte ingurukoentzat) eta prentsa irakurtzeko gunea bat. Liburuak honela daude ordenatuta: helduentzako nobelak, kontsulta gunea (hiztegiak, entziklopediak...), euskal atal bat (Euskal Herriarekin lotutakoak), gai orokorretarako kontsultak (medikuntza, matematika...) eta 8 urtetik goragokoentzako literatura atala.

Gutxinaka ahazten

Momentuz 4.500 liburu inguru daude: garai batean liburuak ere bazituen herriak, 1988tik 1991ra arte, gutxi gorabehera, erabili zituztenak. Geroztik bilduta zeuden eta horiek ere hartu dituzte. Orain, aulkiak eta erabilera besterik ez da falta. Obrak joan den urteko ekainean hasi zituzten eta Udalari 160.000 euro inguru kostatu zaio.

Atzokoan, liburutegia jendez bete zen, irakurtzeko txokoa nola gelditu den ikusteko: Txukuna geratu da, ederra, zioten.

"Herritarrek bultzatu dute" BEGOÑA OLAMUSU. Liburutegiko arduraduna

Astean bitan izango da liburutegiaren zerbitzua herritarrentzat Berrobiko liburutegian lan egiten duen langilearekin.

Begoña Olamusu (Tolosa, 1965) Berrobiko liburutegiko arduraduna izan da orain arte. Hemendik aurrera, Bidegoianen ere izango da astelehen eta asteazkeneko: beraz, bi liburutegietan. Ilusioz eta gogotsu dago tolosarra.

Gogoz zaude Bidegoianen lan egiteko. Zer espero duzu jendearengatik?

Ilusioz, eta gogoz nago. Zerbitzua ona da eta tokia oso aproposa. Azken finean, ohitura berri bat sortzea da jendearengan, baina herritarren beharretik etorri da liburutegiarena, hau da, jendeak bultzatu duen zerbitzu hau: guraso elkarteak bultzatutakoa, eta herriko hainbat eragile edo taldek. Horregatik, jendearen aldetik harrera ona espero dut.

Nola dijoa maileguaren kontua?

Liburutegi arrunten berdina da, hau da, mailegua eskatu behar da liburu bat etxera eramateko, 15 egunez gehienez eduki daiteke liburu etxean... Txartelak beste liburutegietarako balio du, tartean, Tolosaldeko guztietarako.